

ARABAN ENPRESA BERRIAK SORTZEKO ETA FINKATZEKO PROGRAMA
EKINTZAILTZA ARABAN 2026

Eskaerak aurkezteko epea (9.1. art.)		Eskaerak aurkezteko epea 2026eko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2026eko martxoaren 1ean bukatuko da.	
Jarduerak egiteko epea (6.2. eta 6.3 art.)		Enpresa berriak sortzea: 2025ko martxoaren 1etik 2026ko abenduaren 15ra. Enpresak sendotzea eta hedatzea: 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 15ra.	
Helburua (1 art.)	Arabian enpresa berriak sor daitezen sustatzea eta enpresak sendotzeko eta hedatzeko prozesuetan laguntzea, Arabako produkzio-sarea modernizatzen, dibertsifikatzen eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten erakundeei diru-laguntzak emanez.		
Erakunde onuradunak (4 art.)	Enpresa berriak (4.1.1 art.)	➤ Arabako pertsona fisikoak, enpresa-unitate berri bat sortzeko proiektua dutenak. ➤ Arabako pertsona fisiko edo juridikoak, gehienez ere bi urteko antzinatasuna dutenak jarduera hasten denetik edo eskaera egiten den egunean eratu zirenetik. ➤ Jarduera dibertsifikatu nahi duten Arabako pertsona juridikoak, enpresa-unitate berri bat sortzeko proiektu zehatz bat aurkeztuz. ➤ Egoitza edo jarduera Arabatik kanpo duten pertsona fisiko edo juridikoak, lurraldean jarduerazentro bat lekuz aldatzen/ezartzen dutenak.	
	Sendotzea eta hedatzea (4.1.2 art.)	Arabian jarduera-zentroa martxan duten pertsona fisiko edo juridikoak, azken lau urteetan Araban Ekintzailtza programaren laguntzak jaso dituztenak enpresa berriak sortzeko fasean, eta gutxienez enplegu bat eta gehienez hamar dituztenak (sustatzaileak alde batera utzita). Pertsona fisiko edo juridikoak gehienez ere bi urtez izan daitezke onuradun finkatze-fasean.	
Dirulaguntzak jaso dezaketen gastuak (5.3 art.)	Enpresa berriak (5.3.a art.)	• Merkatu-azterketak eta/edo bideragarritasuna. Proiektuarekin zerikusia duten txosten, azterlan eta aholkularitza tekniko espezifikoak. • Prototipoak diseinatu eta eraikitzearen ondoriozko gastuak (muga: 20.000,00 €). Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun-ereduak eta marka komertzialak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak (muga: 10.000,00 €). • Jarduerarekin zuzenean lotutako berariazko ikastaro teknikoetara joatea (< 350 ordu), betiere prestakuntza arautuan dagoen eskaintzaren barruan sartzen ez badira (muga: 3.000,00 €). • Diruz lagun daitekeen proiektuari lotutako komunikazio-gastuak (muga: 20.000,00 €). • Ibilgetuan egindako beste inbertsio batzuk, lursailak, eraikinak eta ibilgailuak izan ezik. • Lokala alokatzeko gastuak (muga: 8.000,00 € lehenengo urtean zehar).	
	Sendotzea eta hedatzea (5.3.b art.)	• Aholkularitza eta kanpo-aholkularitzako lanak, juridikoak barne (muga: 20.000€). • Azterketa teknikoak. • Komunikazio-gastuak (muga: 20.000,00 €). • Kudeaketa hobetzeko prestakuntza (< 350 ordu). • Ekoizpena eta lehiakortasuna handitzeko ibilgetu erosketa. • Teknologia edo negozioaren garatzailea kontratatze gastuak.	
	Gastu diruz lagungarriko zenbateko minimoa, 100 euro. Diru-laguntzako zenbateko minimoa, 1.500 euro.		
Dirulaguntzen zenbatekoak (7. art.)	Dirulaguntzaren zenbatekoa baremo hauen arabera ezarriko da, kalifikazioaren arabera: - Enpresa-unitate berriak sortzeko proiektuak:		
	Puntuazioa	Proiektuaren dirulaguntzaren muga	Oharrak
	80-100	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 80, 80.000 euroko mugarekin.	Ibilgetua: gehienez 40.000 €
	70-79	diruz lagundu daitekeen gastuaren % 70*, 40.000 euroko mugarekin.	Ibilgetua: gehienez 20.000 €
	60-69	iruz lagundu daitekeen gastuaren % 60*, 30.000 euroko mugarekin.	Ibilgetua: gehienez 15.000 €
	51-59	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60*, 10.000 euroko mugarekin.	Ibilgetua: gehienez 5.000 €
	50	diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60*, 6.000 euroko mugarekin.	Ibilgetua: gehienez 3.000 €
* Enpresak % 5eko, % 8ko edo % 10eko dirulaguntza gehigarria lortu ahal izango du.			

Enpresak sendotzeko eta hedatzeko proiektuak:

Puntuazioa	Proiektuaren dirulaguntzaren muga	Oharrak
60-100	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 50, 20.000 euroko mugarekin.	Langileak kontratatzea: gehienez 10.000 €
51-59	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 50, 12.000 euroko mugarekin.	Langileak kontratatzea: gehienez 6.000 €
50	Diruz agundu daitekeen gastuaren % 50, 6.000 euroko mugarekin.	Langileak kontratatzea: gehienez 3.000 €

**Araubide
juridikoa**

Foru Gobernu Kontseiluaren 720/2025 Erabakia, abenduaren 2koa.
 Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da (1. art).

**Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren
Saila**

Ekonomia garapenaren eta Berrikuntzaren
 Zuzendaritza
 Probintzia plaza, 5 – 1.a. 01001 Vitoria-Gasteiz

Informazio gehigarria:

Tel: +34 945 181818 (luzapena 52182 y 52323)
 www.araba.eus
 E-mail: emprenderenalava@araba.eus